



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, GIPUZKOAKO JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROL EN FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2016ko URRIAREN 17an HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA [REDACTED] JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

---

**Espediente-zenbakia: 25/2016**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioko hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 17an hartutako erabakiaren aurka [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsoa iritsi zen Kirol Justiziako Euskal Batzordera (aurrerantzean, batzordea) 2016ko urriaren 21ean. Erabaki haren bitartez, ezetsi egin zen pertsona horrek Eibarko barrutiko hauteskunde-mahaiak hartutako erabakiaren aurka (zeinaren bitartez pertsona horri ez baitzitzaion botoa ematen utzi barruti horretan erroldatuta ez zegoelako) pertsona horrek aurkeztutako errekurtsoa ezetsi zen.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsoa izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

**Hirugarrena.**- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun zion, eta hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eta alegazio-idazkia, 2016ko azaroaren 14koa, bidali zituen.

Errekurtsu hau Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-prozesuaren zuzenbidearekin bat etortzeari dagokionez jarritako errekurtsu multzo baten zati denez (22/2016, 25/2016, 26/2016, 28/2016 eta 30/2016)



zenbakietako espedienteak), eta hauteskunde-batzordearen alegazioen idazkiak errekurtsio horietan azaltzen ziren gai guztiei erantzuten ez zionez, batzordeak bi aldiz eskatu dio hauteskunde-organo horri (2016ko azaroaren 22an eta 28an jakinarazitako idazkiak) aipatutako espedienteen errekurtsioei buruzko informazioa osa zezala, eta errekerimendu horiei 2016ko azaroaren 23an eta 29an erantzun zaie.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertze eta ebazteko*».

**Bigarrena.**- Errekurtsogileak, hots, [REDACTED] jaunak bere errekurtsio-idazkian adierazi du ez dagoela ados Eibarko hauteskunde-mahaiak hartutako erabakiarekin, hau da, botoa ematen ez uztearekin barruti horretan erroldatuta ez zegoelako (Donostiako barrutian zegoen erroldatuta). Errekurtsogileak kontu-hartzaile ahaldun gisa jardun zuen mahai horretan bere kluba den Donostiako Judo Klubaren aldetik.

Errekurtsogileak bere idazkian onartzen du hauteskunde-batzordeak barrutien arabera banatu zituela boto-emaileak eta bera Donostiako barrutikoa zela, eta, era berean, onartu du hauteskunde-batzordeak barrutiz aldatzeko baimena eman ziola, betiere 2016ko urriaren 3a baino lehen eskatzen bazuen.

Errekurtsioan esanbidez onartzen da interesdunak ez zuela distritu-aldaketa eskatu, baina uste du Eibarren botoa emateko eskubidea zuela, kontuan hartuta kontu-hartzaile ahaldun gisa jardun zuela barruti horretan, eta



bere errekurtsioan adierazi duela jarduteko modu hori *“ohikoa dela hauteskunde mota guztietan”*.

Azkenik, alegatu da boto-kontaktaren ondoren ahoz erreklamatu zuela hartutako erabakia hauteskunde-mahaian, baina gorabehera hori ez dagoela jasota hauteskunde-mahaiaren boto-kontaktaren aktan, eta horregatik ez zuela akta hori sinatu.

**Hirugarrena**.- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak igorritako espedientean azaltzen da 2016ko irailaren 22an egindako hauteskunde-batzordeak egindako bilkuraren akta.

Bilkura hartan, hauteskunde-batzordeak hainbat erabaki hartu zituen hauteskunde-prozesuaren hasierari dagokionez, hauteskunde-egutegia onartzeari dagokionez eta hauteskunde-errola onartzeari dagokionez.

Hartutako erabakien artean dago, halaber, bozketa hiru hauteskunde-mahaietan egiteko aurreikuspena (Donostian, Irunen eta Eibarren), eta klub jakin batzuetako teknikariek, arbitroek eta kirolariek Donostiako hauteskunde-mahaian bozkatu beharko dutela. Klub horietako bat Donostiako Judo Kluba da eta errekurtsogilea klub horretako kide da, hain zuzen ere.

Dena den, erabakian honako hau zehazten da: *«Teknikari, arbitro, kirolari edo klub bateg ezin badu bere hauteskunde-mahaian bere boto-eskubidea baliatu, hauteskunde-batzorde honi jakinarazi beharko dio urriaren 3a baino lehen eta zer hauteskunde-mahaitan bozkatu nahi duen esan beharko du»*.

Ez da eztabaidatzen [REDACTED] jaunak ez ziola jakinarazi hauteskunde-batzordeari 2016ko urriaren 3an baino lehen Eibarko barrutiko hauteskunde-mahaian bozkatu zuela; horregatik, batzorde honek ez du arrazoirik ikusten



Eibarko hauteskunde-mahaiak hartutako erabakia, hots, bozkatu nahi zuen hauteskunde-mahaian erroldatuta ez zegoen pertsona bati botoa ematen ez uztea, eta, ondoren, hauteskunde-batzordeak berretsi duena, zuzenbidearekin bat ez datorrela.

Errekurtsogileak Eibarko hauteskunde-mahaian kontu-hartzaile ahaldun gisa jardun izanak ez dio inolako baldintza edo gaitasun berezirik ematen bere botoa erroldatuta ez dagoen hauteskunde-mahai batean emateko aukera justifikatzeko, are gehiago kontuan hartzen bada mahai horretan bozkatu nahi bazuen hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar ziola 2016ko urriaren 3a baino lehen.

Bestalde, batzorde honek ez du ikusten inolako eragozpenik errekurtsogileak zegokion barrutian –Donostian– botoa emateko eskubidea baliatzea eta Eibarko hauteskunde-mahaian kontu-hartzaile ahaldun gisa jardutea bateragarri egin ahal izateko, horretarako nahikoa baitzen bere denbora behar bezala antolatzea hauteskunde-egunean.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU:**

Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 17an hartutako erabakiaren aurka [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsua ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-



errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

**JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen lehendakaria